Ikas egoerak egiteko txantiloia eta Ikas egoera baten diseinurako kontrol zerrendak klaustroari aurkeztu eta erabiltzen hasi	Ikasketa Burua,Bea,, zikloko koordinatzaileak	Gidak eta dekretua	Ikasturte osoan zehar	Ikas egoerak	2 eta 3. hiru hilabeteetan
Zikloka Bildu ikas egoeren koherentzia bermatzeko	Ikasketa Burua,Bea,, zikloko koordinatzaileak	Eskolako formakuntza	Ikasturtean zehar	Ikas egoerak	2 eta 3 hiru hilabeteetan

Hobekuntzarako proposamena

IHP EBALUAZIOA BEA PLANGINTZA

1. Zuzendaritza-taldeari eta irakasleei laguntzea eremu, arlo edo jakintzagaietan dauden kompetentzia espezifikoen ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak definitzen , IHPan jasotzen eta inplementatzen

ZEREGINA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	DENBORALIZAZIOA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	EBALUAZIO DATA
LHn Kompetentzia espezifikoak +Ebaluazio irizpideak+Oinarizko Jakintzak+Lorpen adierazleak Definitzen irakasleei lagundu	ZT, Bea, irakasleak	Dekretua, IUP, Programazioak	Urtean zehar	Programazioak	2 eta 3 hiruhilabeteetan
HHn Kompetentzia espezifikoak +Ebaluazio irizpideak+Oinarizko Jakintzak+Lorpen adierazleak Definitzen irakasleei lagundu	ZT, Bea, irakasleak	Dekretua, IUP,Programazioak	Urtean zehar	Programazioak	2 eta 3 hiruhilabeteetan

Hobekuntzarako proposamena

2. Zuzendaritza-taldeari eta irakasleei laguntzea Ikasleen ikaskuntza-prozesua ebaluatzeko prozedurak diseinatzen , IHPan jasotzen eta inplementatzen

ZEREGINA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	DENBORALIZAZIOA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	EBALUAZIO DATA
HHn adostutako minimoetan oinarritutako erregistro orriak sortu eta behaketa zuzenaren bidez betetzen jarraitu	ZT, Bea, irakasleak	Dekretua, IUP	Urte osoan zehar	Programazioak, ikas egoerak	Hiruhilabetero
Hasierako frogatik abiatuta zehaztutako minimoen aurrerakuntza ebaluatzeko jarraipen rubrikak sortu.	ZT, Bea, irakasleak	Dekretua, IUP	Urte osoan zehar	Programazioak, ikas egoerak	Hiruhilabetero

Hobekuntzarako proposamena

3. Zuzendaritza-taldeari eta irakasleei laguntzea, ikasle guztien ikaskuntzaren bilakaera behar bezala balora dadin, askotariko ebaluazio-tresnak definitzea, IHPan jasotzen eta inplementatzen

ZEREGINA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	DENBORALIZAZIOA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	EBALUAZIO DATA
LHn ebaluazio tresna eta erreminta ezberdinak aurkeztu zikloetan erabiliko dituztenak adostu eta sortzen lagundu	ZT, Bea, irakasleak	B1 eta b2 Digitalizazio ikastaroa	Urte osoan zehar	Programazioak, ikas egoerak	Hiruhilabetero
HHn ebaluazio tresna eta erreminta ezberdinak aurkeztu zikloetan erabiliko dituztenak adostu eta sortzen lagundu	ZT, Bea, irakasleak	B1 eta b2 Digitalizazio ikastaroa	Urte osoan zehar	Programazioak, ikas egoerak	Hiruhilabetero
Ebaluazio tresnen egokitzapena(DUA) dagoela ziurtatzen lagundu	ZT, Bea, irakasleak	B1 eta b2 Digitalizazio ikastaroa	Urte osoan zehar	Programazioak iaks egoerak	Hiruhilabetero
Hasierako ebaluazio, esku hartze doituak eta azken ebaluazioa egiteko prozedurak deninitzen eta sortzen lagundu	ZT, Bea, irakasleak	B1 eta b2 Digitalizazio ikastaroa	Urte osoan zehar	Programazioak ikas egoerak	Hiruhilabetero

Hobekuntzarako proposamena

4. Zuzendaritza-taldeari eta irakasleei laguntzea ikasleen promozioari eta titulazioari buruzko erabakiak hartzeko garaian kontuan hartuko diren kalifikazio-irizpideak definitzen, IHPan jasotzen eta inplementatzen

ZEREGINA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	DENBORALIZAZIOA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	EBALUAZIO DATA
HH n txostenak berrikusi eta hórrela adostu ezkeru diseinu berria prestatzen hasi	ZT, Bea, irakasleak	Dekretua, IUP	Urte osoan zehar	Eskolako barne antolamendurako dokumentazioa	Hiruhilabetero
LHn promozio eta titulazioari buruzko erabakiak berrikusi eta hórrela adostu izanez gero, planteamendu berria prestatzen hasi	ZT, Bea, irakasleak	Dekretua, IUP	Urte osoan zehar	Eskolako barne antolamendurako dokumentazioa	Eskolako barne antolamendurako dokumentazioa
Maila/ziklo/etapen artean ikasleen inguruko informazioa partekatzen lagundu eta horretarako gune ete uneak zehazten dituen plangintza egin	ZT, Bea, irakasleak	Dekretua, IUP	Urte osoan zehar	Adostutaako bilerak	Eskolako barne antolamendurako dokumentazioa
Komunikazioa(klaustroa, familiak irakasleak...nola izango diren zehazten lagundu	ZT, Bea, irakasleak	Dekretua, IUP	Urte osoan zehar	Eskolako barne antolamendurako dokumentazioa	

Hobekuntzarako proposamena

5. Zuzendaritza-taldeari eta irakasleei laguntzea ikasleek hezkuntza-prozesuan izan ditzaketen beharrak detektatzeko ebaluazio-sistemak garatzen eta detekzio goiztiarreko protokoloak inplementatze, IHPan jasotzen eta inplementatzen

ZEREGINA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	DENBORALIZAZIOA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	EBALUAZIO DATA
Adostutako detekzio goiztiarreko protokoloak bete eta alerta seinaleak antzeman	ZT,Pt, aholkularia, irakasleak	Protokoloa	Urte osoan zehar		Hiruhilabetero
Gaiari lotutako formazioan parte hartu	ZT,Pt, aholkularia, irakasleak	Berritzegune Nagusiko formazio eskaintza	Urte osoan zehar		Hiruhilabetero
Tutoreei Pt eta aholkulariarekin elkartzeko uneak planifikatu	ZT,PT eta aholkularia irakasleak		Urte osoan zehar		Hiruhilabetero
Hasierako ebaluazioaz baliatzea beharrak detektatzeko, erabakiak hartzeko eta kudeatzeko, bidea markatu	ZT,PT, irakasleak aholkularia		Urte osoan zehar		Hiruhilabetero

Hobekuntzarako proposamena

6. Zuzendaritza-taldeari eta irakasleei laguntzea irakaskuntza-praktika eta bera ebaluatzeko sitemak definitzen, IHPan jasotzen eta inplementatzen

ZEREGINA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	DENBORALIZAZIOA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	EBALUAZIO DATA
Autoebaluaziorako tresnak helarazi denon artean kontrol zerrenda egiteko	ZT, Bea, irakasleak	B1 eta B2 ikastaroa	Urte osoan zehar	Adostutako bileretan planteatutako helburuak bete	Hiruhilabetero
Jarraikotasuna egon dadin emaitzak partekatu, baloratu eta behar izanez gero irakaskuntza praktikan egin beharreko aldaketak adostu	ZT, Bea, irakasleak	B1 eta B2 ikastaroa	Urte osoan zehar	Adostutako bileretan planteatutako helburuak bete	Hiruhilabetero

Hobekuntzarako proposamena

2.3.3. Formakuntza eta garapen profesionala

Formación y desarrollo profesional

↳ Ikastetxearen prestakuntza proiektu edota ekintzak [deialdi ezberdinen barruan]

Actividades o proyectos de formación del centro ligados a convocatorias

gaiak eta egutegia / temas de formación y calendario

DIGITALIZAZIOA	A1 osoa irakasle 1-ek egingo du
DIGITALIZAZIOA	A2 osoa irakasle 2-k egin behar dute
DIGITALIZAZIOA	A2 UBIDEA (Ebaluazioa) 9 irakaslek egin behar dute
DIGITALIZAZIOA	B1 eta B2 urtarritatik Aurrera klaustro osoak egingo du.
HIZKUNTZAKO ESKU-HARTZE PREBENTIBOKO PROGRAMA	Irailaren 4 eta 5 HH online

↳ Ikastetxearen beste prestakuntza proiektu edota ekintzak

Otras actividades o proyectos de formación del centro

gaiak eta egutegia / temas de formación y calendario

LEHENBIZIKO SOROSPENAK	Irailaren 19 eta 26an
MUTILACION GENITAL FEMENINA	Urriaren 4an
BERRIKUNTZA FORMAIZIOA (ikas-egoera)	Asteazkenetan

↳ Irakasleriaren ikastetxez kanpoko prestakuntza ekintzak lan-ordutegian

Actividades formativas del profesorado fuera del centro en horario lectivo

irakaslea profesor/a	ekintza-gaia actividad-tema	tokia lugar	egutegia/ordutegia fechas/horario
MARIA LUZ BENITEZ	BERRIKUNTZA MOGRAFIKOAK MINTEGIAK	DEIALDIAK ZEHAZTEN DUENA (LURRALDEKA)	IKASTURTEAN ZEHAR EGUTEGIAREN ARABERA
REYES TEJERO	ZUZENDARITZA	BERRITZEGUNEK DEITZEN DUEN TOKIAN	HILABETEAN BEHIN (OSTEGUNEAN)
ELIXABET ETXEBARRIA	IKASKETA BURUA	BERRITZEGUNEK DEITZEN DUEN TOKIAN	HILABETEAN BEHIN (OSTEGUNEAN)
LANDER HERNANDO	DIGITALIZAZIOA DIGICOMPUEDU GELAN	BERRITZEGUNEK DEITZEN DUEN TOKIAN	IKASTURTEAN ZEHAR EGUTEGIAREN ARABERA 10 ORDU

ASUN ZORRILLA	HEZKIDETZA	BERRITZEGUNEK DEITZEN DUEN TOKIAN(BEGOÑA)	HILABETEAN BEHIN (ASTELENENEAN)
BAT TALDEA IRATXE BARRASA	ESKOLA JAZARPENA BIZIKIDETZA ETA HEZKIDETZA	10 ORDU 10 ORDU	
ELI ETXEBARRIA (ikasketa burua) REYES TEJERO (zuzendaria)	ONGIZATE EMOZIONALA ETA ZAINZAREN KULTURA	10 ORDU	
MAITE PEREZ	ENTZIUMEN eta IKASKUNTZA IRAKASLEAK	15 ORDU	

↳ **Esperientziak, programa edota berrikuntzak ikastetxean** *Experiencias, programas y/o proyectos que se desarrollan en el centro:*

Hizkuntza indartze neurria

HIZKUNTZA (Indartze neurrietarako erabiliko da)

Oharrak *Observaciones*

Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan jarritako indartze neurriak, astean behin, ordubeteko saioa erabiliz.

Errefortzuko irakasleak (tutoreak, PTE, eta jantokiko arduraduna, aldez aurretik hitzartutako ordutegi baten arabera gelaz gela mugituko dira.

Helburuak:

- **Hizkuntzak landu era komunikatiboan, esanguratsu eta bizian.**
- **Hizkuntza sormena eta adierazteko gaitasuna**
- **Aniztasunari erantzuna ematea**

HIPI *PRL*

IKASLE ETORKINAK

Oharrak *Observaciones*

HIPI programa

Komunikazioaren lana errazteko.

Dagozien geletan, astean bost errefortzu-saio eskola-sistemara eskeintzea ingurune seguru eta atseginean.

Norbanako planak betetzea ikasle guztiei.

Helburuak:

- **Hiztegia eta hizkuntza-ulermena eta -adierazpena lantzea.**
- **Komunikatzeko beharrari erantzutea.**
- **Aniztasunari erantzutea.**

HEZKIDETZA ANEXO I

Oharrak *Observaciones*

- **Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean**
- **Hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez sexista**
- **Emakumeen jakituriaren integrazioeta haien ekarpen social eta historikoa**
- **Emakumearen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku-hartzea.**

IKT eta ELKARTENET

Oharrak *Observaciones*

HAUR HEZKUNTZAN ETA LHko LEHENENGO ZIKLOAN

- **Ordenagailuaren sistema eragilea ezagutu (Txikilinux)**
- **Ordenagailuekin lehenbiziko lanerako kontaktuak izan**

LHko BIGARREN ETA HIRUGARREN ZIKLOAK

- **Classroom, livewroksteets, eskolako emailaren erabilera....**
- **Ziber-dekalogoia**

LOGOS: ZIENTZIAZ BLAI

Oharrak *Observaciones*

Beren ezaugarri sozioekonomikoengatik eta erakundeen babesik ezagatik kultura eskuratzeko zailtasun handiagoak dituzten eremu geografikoetara hurbiltzea kultura zientifikoa.

Kultura zientifikoarekin lotutako baliabide publikoetarako sarbidea eta bidezko banaketa sustatzea, garapen soziala eta aukera-berdintasuna sustatuz.

CurriDigi

DIGITALIZAZIOA ANEXO II

Oharrak *Observaciones*

Teknologia digitalak
Ikastetxeetako irakaskuntza-, ikaskuntza- eta ebaluazio-prozesuak

3. Irakaskuntza-jarduera osagarrien programa eta eskolaz kanpokoan programa programa de actividades complementarias y extraescolares

3.1 Jarduera osagarriak

jarduera <i>actividad</i>	helburuak <i>objetivos</i>	antolatzailea <i>organización</i>	arduraduna <i>responsable</i>	jasotzaileak <i>receptores</i>	non - noiz <i>lugar-días-horario</i>	finantziakoa <i>financiación</i>
INKLUSIBITATEA ONCE ELKARTEA	ROL aldaketa, enpatia lortzeko	ONCE	TUTOREA	6.MAILAKO IKASLEAK	ESKOLAN BERTAN 2. HIRUHILEAN	DOHAINIK
	INKLUSIOA: hitzarekin lotutako hitzak asmatu eta hiztegia egitea INKLUSIONARIO izenekoa					
URDAIBAKO INGURUMEN ZENTROA	Ingurunean ikertuz, bizipenak jasoz, behatuz, aztertuz, sentituz... natura ezagutu, harenganako errespetuzko jarrerak eta ekimenak garatzeko.	URDAIBAKO INGURUMEN ZENTROA	Ikasketa burua Lander Hernando tutoreak	4., 5. eta 6. Mailako ikasleak	SUKARRIETAN	ESKOLA AMPA FAMILIAK
	Harreman dialogikoa erabiliz, hausnartuz, norbere usteak elkartrukatzuz eta inguruan ditugun gauzetan erreparatuz, erabiltzen ditugun gauza guztiak nondik datozen aztertu dena naturatik datorrela ohartzeko.					
HEZKIDETZA	Emakumeak eta beraien istorian zehar egindako ekarpenak goraipatzea	Hezkidetza batzordea	Familiak Tutoreak	ikasleria	inauterietan	eskola

ELIKADURA OSASUNGARRIA	Gure elikadura gure bizitzarekin duen lotura aztertzea, gure elikadura-ohiturak hobetzeko	udaletxea	4. mailako tutorea	4. mailako ikasleria	Urtarrilak 29, 30	DOHAINIK
-----------------------------------	--	------------------	---------------------------	-----------------------------	--------------------------	-----------------

BIDE- HEZKUNTZA	<p>Parte-hartzaileak jarraibide eta jarrera seguruak jarraitu behar dituela onartzea, egoera arriskutsuak saihesteko.</p> <p>Parte-hartzaileak segurtasunik gabe jokatzera garamatzaten arrazoiak aztertzea.</p>	UDALTZAINGOA	Tutoreak	5., 6. MAILA	Otsailak 15	DOHAINIK
----------------------------	--	---------------------	-----------------	---------------------	--------------------	-----------------

GARRAIOA	Garraiobide publikoak eta erabiltzailearen eskubideak eta betebeharrak ezagutzea, eta garraio publikoak mugikortasun iraunkorrerako dituen abantailei buruz hausnartzea.	UDALETXEA	TUTOREAK	6. MAILA	Martxoak 15, 6.D Martxoak 22, 6.A	
ARTIGAS	Hiri-hondakinen jatorria, kudeaketa, tratamendua, aprobetxamendua eta ezabatze zuzena ezagutu praktikatzeko.	ARTIGAS	TUTOREAK	6 MAILA	DOHAINIK	
MERKATUA	Ingurumena errespetatzen duen eta ekoiztu eta banatzen den elikadura jasagarria egiteko oinarritzko irizpideak eskuratzea, gure elikadura-ondarea indartzen lagunduko duten baldintzetan.	UDALETXEA	TUTOREAK	4., 5.. MAILA	Apirilak 9 Martxoak 19	DOHAINIK

BILBOKO SUHILTZAILEAK	Suhiltzaileen funtzionamendu orokorra ezagutzea eta zerbitzu publikoaren kudeaketa baloratzea	ALDUNDIA	TUTOREAK	3., 4., 5. 6.. MAILA		DOHAINIK
------------------------------	---	-----------------	-----------------	-----------------------------	--	-----------------

SAN MAMES	Taldeko kirolaren baloreak zabaltzea	SAN MAMES FUNDAZIOA	TUTOREAK	3., 4. MAILA	Urtarrila Martxoa	DOHAINIK
------------------	--------------------------------------	----------------------------	-----------------	---------------------	--------------------------	-----------------

IKASTURTE BUKAERAKO IRTEERAK	Ikasleen eta irakasleen arteko loturak osatzea, ikasgelen barruan posible ez direnak	IRAKASLERIA	TUTOREAK	IKASLERIA	Maiatza	ESKOLA
-------------------------------------	--	--------------------	-----------------	------------------	----------------	---------------

MERKATUA	Ingurumena errespetatzen duen eta ekoiztu eta banatzen den elikadura jasangarria egiteko oinarritzko irizpideak eskuratzea, gure elikadura-ondarea indartzen lagunduko duten baldintzetan.	UDALETXEA	TUTOREAK	4., 5.. MAILA	Apirilak 9 Martxoak 19	DOHAINIK
-----------------	--	------------------	-----------------	----------------------	-----------------------------------	-----------------

ZIENTZIAZ BLAI	<p>Beren ezaugarri sozioekonomikoengatik eta erakundeen babesik ezagatik kultura eskuratzeko zailtasun handiagoak dituzten eremu geografikoetara hurbiltzea kultura zientifikoa.</p> <p>Kultura zientifikoarekin lotutako baliabide publikoetarako sarbidea eta bidezko banaketa sustatzea, garapen soziala eta aukera-berdintasuna sustatuz.</p>	LOGOS ELKARTEA	TUTOREAK	4., 5.. MAILA	Apirilak 9 Martxoak 19	DOHAINIK
-----------------------	---	---------------------------	-----------------	----------------------	-----------------------------------	-----------------

HAUR HEZKUNTZA

IZENADUBA	Euskal kultura eta hizkuntzarekin erlazionatutako giza-jarraibide berriak eta tradizioarenganako errespetua eragin behar duen definitutako kontzeptu hezigarria indartzea eta dinamizatzea.	IRAKASLERIA	TUTOREAK	3, 4 eta 5 URTE	Abenduak 18	ESKOLA
	Euskera aisiladian erabiltzeko nahi piztu.					

MEDIATEKA	Ikastetxeei zuzendutako Mediateka Konektatu, Pentsatu eta Sortu programaren bidez, ikasleek eta irakasleek irakurketarekin, kultura digitalarekin eta sorkuntza artistikoarekin deskubritu eta ohitzea.	IRAKASLERIA	TUTOREAK	4 eta 5 URTE	Martxoak 5 eta 6	DOHAINIK
------------------	---	--------------------	-----------------	---------------------	-------------------------	-----------------

MERKATUA	Elikagaiak ezagutzea.	Tutoreak eta Mela eta Patxintxi	TUTOREAK	4 URTE	Maiatzan	DOHAINIK
GINKANA ALDE ZAHARREAN	Jarduera alternatiboak eta desberdinak planteatzea, errutinak hautsi eta kirol-kulturaren garapena sustatzeko. Dibertimendua eta lankidetzaren sustatzea, lehiakortasunaren gainera.	Tutoreak eta Mela eta Patxintxi	TUTOREAK	5 URTE	Maiatzan	DOHAINIK

IKASTURTEKO JAIK	Azaroak 25 Euskararen eguna Olentzero Talo eguna Inauteriak Agate Deuna Martxoak 8 Korrika Liburu eguna Munduko Aniztasunaren eguna	Klaustro AMPA	Klaustroa	Ikasleria	Azaroak 24 Abenduak 1 Abenduak 22 Otsailak 8 Otsailak 5 Martxoak 8 --- Apirilak 23 Maiatzak 21	ESKOLA
-----------------------------	--	--------------------------	------------------	------------------	--	---------------

3.2 Eskolaz kanpoko jarduerak

jarduera <i>actividad</i>	helburuak <i>objetivos</i>	antolatzailea <i>organización</i>	arduraduna <i>responsable</i>	jasotzaileak <i>receptores</i>	non - noiz <i>lugar-días-horario</i>	finantziakoa <i>financiación</i>
ETORKIZUNA MUSIKATAN	Irudimena, jakin-mina eta sormena sustatzea, modu egokian adierazteko, norberaren emozioak kudeatuz.	NORAI AMPA ZUZENDARITZA TALDEA	NORAI AMPA	LEHEN HEZKUNTZA	Astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan	NORAI AMPA
	Memoria eta arreta garatzea eta hobetzea					
	Aldartea hobetzea eta ongizate emozionala lortzea, musikaren bitartez.					
LIBURUTEGIA	Euskaraz zein gaztelaniaz irakurtzera motibatzea, eta, era berean, liburutegiaren portaera- eta antolaketa-arauak ezagutzea.	AMPA	AMPA	IKASLERIA	Ostegunetan 16:30-18:00	AMPA

	Familientzako eta haien seme-alabentzako topagune bat ezartzea patioan egiten diren ohiko jolasetatik kanpo, kulturara hurbiltzeko eta irakurtzeko ohitura errazteko					
--	--	--	--	--	--	--

ONDOAN	Astelehenero 16:30-17:30, Jolastokian eskolatik irtetean geratzen diren ikasleei laguntzea, talde-jokoa eta jolas-jarduerak sustatzeko.	ONDOAN	ONDOAN elkartearen begiraleak	Ikasleria	Astelehenero eskolako patio nagusian	DOHAINIK
---------------	---	---------------	--	------------------	---	-----------------

GURASO ESKOLA	Eskolako gurasoekin gai interesgarriak jorratzea, berdinen arteko topaketa lortzeko eta esperientziak partekatzeko, halaber, ikasleekin ere gaiak jorratzea tutoretzaren bitartez	AMPA	AMPA	Familiak		
--------------------------------	---	-------------	-------------	-----------------	--	--

KIROLA GURASOEKIN	Kirolaren bidez, ohitura osasungarriak bultzatzea.	AMPA	AMPA	Familiak		
--------------------------	--	-------------	-------------	-----------------	--	--

BIDELAGUNA	Oinarrizko gaitasunen garapena hobetzea, bereziki irakurketarekin, arlo edo irakasgai instrumentalekin, lanaren antolaketarekin eta ikasteko ohiturak hartzearekin lotutako zereginak.	BIDELAGUNA	Aholkularia	5., 6. MAILAK	Eguerdietan	ESKOLA
	Ikasleek beren gaitasunei buruz dituzten itxaropenak hobetzea, baita ikastetxeak bere ikasleei buruz dituenak ere.					

BAKUVA	KIROLA eta HEZKUNTZA LAGUNTZA Eskola-adinean dauden adingabeei arreta ematea, haien integrazio- eta garapen-prozesua lagunduz bizikidetzako gizarte eta kultura batean, kirol-, jolas- eta ikasketa-jardueren bidez, gizarte-integrazio egokia lortzeko.					
---------------	--	--	--	--	--	--

GURASO eta ESKOLA	Eskolako gurasoekin eskolarekin lotutako gai interesgarriak jorratzea: ohiturak, arauak, hezkidetz... berdinen arteko topaketa lortzeko eta esperientziak partekatzeko. Halaber, ikasleekin ere gaiak jorratzea tutoretzaren bitartez	PAE LANBIDE ZUZENDARITZA TALDEA	PAEren ordezkaria	Familiak	ZEHAZTU GABE	ESKOLA
--------------------------	---	--	--------------------------	-----------------	---------------------	---------------

4. Ekonomia-kudeaketarako plana

plan de gestión económica

↳ **Finantza baliabideen banaketaren irizpideak** *Criterios de distribución de los recursos financieros.*

ikastetxearen funtzionamenduari aurre egiteko beharrezkoak diren gastuak, hau da, jantokia, material didaktikoa, bulegoko materiala, prestakuntza, hirugarrenek emandako zerbitzuak, etab.

↳ **Ekonomia-kudeaketaren arduraduna/k** *Responsable/s de la gestión económica*

Kudeaketa horren arduradunak Zuzendaria eta Idazkaria dira, eta, gainera, Ekonomia Batzordeko kide dira, familien ordezkari batekin batera.

↳ **Sarrera iturriak** *Fuentes de ingreso*

Zentroak lau ataletan sailkatzen diren funtsak kudeatzen ditu.

1. JATORRIA: AURREKO EKITALDIKO GERAKINA.
2. JATORRIA: SAILETIK JASOTAKO FUNTSAK.
3. JATORRIA: FINANTZAKETA PUBLIKOA DUTEN BESTE ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDE BATZUK.
- 4: BESTE JATORRI BATZUETAKO DIRU-SARRERAK.

↳ **Sarreraren aurrikuspena** *Ingresos previstos*

1. JATORRIA: AURREKO EKITALDIKO GERAKINA.
Aurreko ekitaldian soberan geratu diren funtsak dira.
Gastuen kontua: 57.476,10 euro
Jantokiko kontua: 73.446,25 euro
Kutxako dirua: 143,43 euro.
2. JATORRIA: SAILETIK JASOTAKO FUNTSAK.
1.- Funtzionamendu-gastuak: 10.507,46 euro
2.- Ekipamendu-gastuak: 2.336,25 euro.
3.- Kudeaketa zuzeneko jantokiak: 55.269,58 euro.
4.- Testu-liburuetarako zuzkidura: 1.587 euro.
5.- Hezkuntza-esperientziak eta beste jarduera batzuk, BIDELAGUNA 7.837,50 euro eman dizkigu.
3. JATORRIA: FINANTZAKETA PUBLIKOA DUTEN BESTE ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDE BATZUK.

Bilboko Udalaren dirua jasotzen dugu eskolako igeriketa programan parte hartzeko. Aurten eman digute kopurua: 466 euro
- 4: BESTE JATORRI BATZUETAKO DIRU-SARRERAK.
1.- Zerbitzuak emateagatiko diru-sarrerak sartzen dira IGEaren ekarpenak, aurten 190 euro eman dizkigute Urdaibai Ingurumen Hezkuntzako Proiektua parte hartzeko, 2983 euro

📄 **Kontrol sistemak, gastuen justifikazioa eta erregistroa** *Sistemas de control, registro y justificación de gastos*

IKASKUDEK (IKastetxeen Kudeaketa Ekonomikorako Sistema) aplikazioa da jarduera ekonomikoa kudeatzeko daukagun bitartekoa.

Jatorrizko dokumentu-euskarriak, bai sarrerena, bai gastuena, ikastetxean gordetzen dira, Hezkuntza Sailaren eskura edukitzeko .

📄 **Jarraipena, bilera kopurua, datak...** *Seguimiento, número de reuniones, fechas...*

Ikaskudek aurrekontuaren eguneraketa, zuzenketa eta jarraipena egiteko aukera ematen digu.

Hilero, banku-berdinkatzeari buruzko dokumentazioa bidaltzen zaio lurralde-ordezkaritzari, gastuak eta diru-sarrerak zuzenak direla egiaztatzeko, eta, horrela, akatsen bat antzemanez gero, berehala zuzenduko litzateke.

Gutxienez, bi bilera egiten dira OOGk aurrekontuei oniritzia emateko.

Lurralde Ordezkaritzari bi datetan bidaltzen diegu dokumentazioa:

- 1.- Ikasturteraen amaieran: ekainak 25.
- 2.-Ekitaldi amaiera: abenduak 31

📄 **Egin behar diren txostenak, edukina, nori informatu...** *Informes que se han de elaborar. contenido, a quién informar...*

Sarrerena eta gastuena AGIRI originalak (jakinarazpenak, fakturak) ikastetxean gordetzen ditugu eta Hezkuntza Sailaren, Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Kontuen Euskadiko Epaitegiaren eskura egongo dira.

Bi aldiz aurkezten ditugu kudeaketa-kontuak: lehen aldiz, ikasturtearen amaierarekin batera; eta bigarren aldiz, aurrekontu-ekitaldia amaitu ondoren. Batean zein bestean, kudeaketa-kontuak ikastetxeko OOGk onartuko du Izapide horiek betetzen direnean, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidaltzen dugu dokumentazioa.

5. IUPren garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena seguimiento del desarrollo del PAC y del funcionamiento del centro

📄 Urteko planaren garapenaren jarraipenaren planifikazioa *Planificación del seguimiento del desarrollo del plan anual*

	arduraduna <i>responsable</i>	jarraipen datak <i>fechas de seguimiento</i>	tresnak eta behar den informazioa <i>instrumentos e información necesaria</i>	informaz. deboluzioaren data <i>fecha devolución</i> información		oharrak <i>observaciones</i>
				klaustroari	OMR-OOG-ri	
1. HELBURUA	BeA ZUZENDARITZA IRAKASLERIA	IKASTURTEAN ZEHAR	CURRICULUM IHP ZP IPD	Urriaren 24an	Urriaren 25ean	Hobekuntza proposamenak urteko memorian jasoko dira. Guraso elkarteak ere egindako proposamenak jasoko dira
2. HELBURUA	HEZKUNTZA KOMUNITATEA ZUZENDARITZA TALDEA IRAKASLERIA BeA	IKASTURTEAN ZEHAR	IHP ZP IKT IRAKURKETA PLANA JAIK INGURUMEN ZENTROA	Urriaren 24an	Urriaren 25ean	Zaugarritasun indizea kontuan hartuta, inklusio printzipioetan eta errealitate spzio-linguistikoan oinarritzen gara
3. HELBURUA	ZUZENDARITZA AHOLKULARIA KLAUSTROA IKUSKARITZA PAE AUZOKO ELKARTEAK	HILABETERO	BERTARATZE ZERRENDAK FAMILIAK GURASO ELKARTEA PAE	Urriaren 24an	Urriaren 25ean	Paeko arduradunarekin koordinaketa zuzena. Bizikidetza positiboan jarduerak planifikatuta Familiekin kontaktu zuzena
4. HELBURUA	BeA	IKASTURTEAN ZEHAR	HEZKIDETZAGUNEA	Urriaren 24an	Urriaren 25ean	Koordinaketak bermatu Inklusio printzipioak

	BAT TALDEA ZUZENDARITZA DIGITALIZAZIO BATZORDEA IKT KLAUSTROA		ZP IHP CURRICULUMA			Lantaldeak Ongizate emozionala
5. HELBURUA	TEKNOLOGIA BATZORDEA BeA IKT ZUZENDARITZA ELKARTENET KLAUSTROA	BIGARREN HIRUGARREN HIRUHILABETEAN	ELKARTENET IPD CURRIDIGI	Urriaren 24an	Urriaren 25ean	Talde dinamikak Esparru digitalak B1 eta B2



CEIP MIRIBILLA HLHI
C/ VITORIA-GASTEIZ 5
48003-BILBAO-BIZKAIA



Tel. 944166820/fax944162073

015360aa@hezkuntza.net

CEIP MIRIBILLA HLHI

IKASTETXEAREN URTEKO PLANA **ANEXOAK**



2023/2024 IKASTURTEA

CEIP MIRIBILLA HLHI

HEZKIDETZA PLANA



2023/2024

SARRERA

Gure Hezkuntza proiektuan jasota dagoen bezala, eskolak, ikasleen arteko harremanak berdintasun iraunkorretik sustatzeko konpromisoa du, hezkuntza ez sexistaren aldeko hautua eginez eta curriculum guztietan zein arlo ez curricularrean genero ikuspegia txertatuz. Horrela, berdintasunean oinarritutako sozializazioa ziurtatuko du eta sozializazio horrek, nesken eta mutilen garapen pertsonala ahalbidetuko du identitate propioaren eraikuntzan.

Orain arte, arlo hau lantzeko eta gure hezkuntza sisteman txertatzeko sentsibilizazio eta ekintza zehatz batzuk egin diren arren, inoiz ez zaio era sistematiko eta estrategiko batez heldu.

Honegatik guztiagatik, beharrezkoa ikusten dugu transformazio-prozesuan lanean jarraitzea eta plan orokor, estrategikoa eta sistematikoa egitea. Alde batetik, eskolak bizi duen errealitatea aztertzeko eta hobeto ezagutzeko. Bestetik, eskola komunitatean eragin eta aldaketa esanguratsua lortzeko, genero-indarkeriarekin loturiko hezkidetzeta, berdintasuna eta prebentzioa landuz.

Hezkidetzaren bidez, gure ikasleen artean estereotipo sexista eta diskriminatzaile zaharrak baztertzen saiatu nahi dugu; izan ere, asimilatzen badute, etorkizunean benetako berdintasuna lortuko dugula bermatzen dugu.

Miribilla HLHtik Berdintasun Plan honen bidez hainbat neurri eta jarduera bultzatu eta finkatuko dira:

- Genero-ikuspegitik, Ikastetxeko Planetan, materialetan eta curriculumean sakondu
- Hezkuntza-komunitate osoaren ikaskuntza, prestakuntza eta inplikazioa ziurtatu
- Genero-indarkeriaren prebentziorako ekintzen sustapenean eta hezkuntza-sistemaren egituraren bertan, neurri eta jarduera multzo bat bultzatu eta sendotu

Azkenik, Klaustroak eta Eskola Kontseiluak (Miribilla HLHI) berdintasun-plan hori ezagutu eta onartu behar dute, bai eta planaren garapena berrikusi eta ebaluatu ere, koordinazioa aitortuz.

JUSTIFIKAZIOA

Miribilla HLHI zentroa izen bera duen auzoan dago, Bilbo Zaharrarekin muga eginez. Ikasleak, batez ere, ondoko auzoetatik datoz: Zabala, San Frantzisko eta Bilbo Zaharra, nahiz eta ikasleak ere erdigunetik urrunago dauden auzoetatik datozenak, baina, ikastetxean eskolatuta daude (Otxarkoaga, Zorrotza, Basauri...)

Bilbo Zaharra (ikasle gehienen auzoa), hirugarren auzoa da Bilboko udalerriko familia-errenta txikienarekin.

Zentroaren ezaugarri nagusia da kultura-aniztasuna eta aberastasun bat dira, errespetutik landu behar duguna.

Denok dakigunez, historian ikusi da haurrak, gizonak eta emakumeak ez direla berdin tratatu mendeetan zehar.

Eskola funtsezko lekua da desoreka historiko horiek zuzentzeko ezinbestekoak diren balioak sustatzeko eta bultzatzeko eta balio horiek lagungarriak baitira emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko. Balio horiek, azken batean, genero-diskriminazioa gure gizarte-jardunbideetatik desagerraraziko dute.

Uste dugu gure ikastetxean, Miribilla HLHI, hainbat jarduera eta jokabide bultzatu behar ditugula, errespetuan eta justizian, tolerantzian, ulermenean, elkartasunean, erantzukizunean, herritartasun demokratikoan, aukera-berdintasunean, konfiantzan, adiskidetasunean eta abarretan oinarritutako giza harremanak bultzatzen dituzten balioak transmititzen laguntzen dutenak. Balio horiek, azken batean, elkarrekin bizitzeko oinarria dira, estereotipo eta diskriminazio sexistarik eza...

ARAUDIAREN ARABERAKO JUSTIFIKAZIOA

77/2023 **Dekretua** maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa
"Hezkidetzaren maila eta modalitate guztietan, ikastetxeen antolaketa pedagogikoaren irizpide orientatzailea den aldetik eta hezkuntza-sistemaren ildo estrategikoa den aldetik, funtsezkoa da pertsonen garapena errazteko, sexuaren, sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren arabera estereotipoen eta roleren kanpo".

Garapen Jasangarriko **2030 Agendak**
"Genero-berdintasuna lortzeko eta emakume eta neska guztiak ahalduzko nazioarteko komunitatearen konpromisoa bultzatu nahi du, helburu espezifiko baten bidez, bosgarrena, eta zeharka, gainerako helburuetan".

PROIEKTUAREN FASEAK

Hezkidetzaren Plana gauzatzeko, hiru fase egitea proposatzen da:

1. Sentsibilizazioa
2. Diagnostikoa
3. Plangintza, jarraipena eta ebaluazioa.

Horietako bakoitzean landu beharreko hainbat tresna eta material proposatzen dira, ikastetxean eta ikasgelan zer egiten den, nola egiten den eta hezkuntza-komunitateko kide guztien artean nola hobetu daitezkeen hausnartzeko eta birpentsatzeko aukera emango dutenak.

HELBURUAK

Ikastetxeak helburu orokorrak eta espezifikoak ezarriko ditu berdintasunari eta bizikidetzari dagokionez.

Gure helburu nagusia :

"Haurrak generoagatiko desberdintasunen kontzientzia har dezatela rol, jardura eta jarrerari dagokienez, funtsean, jarrera kritikoa garatzeko horien aurrean, betiere afektibitate eta harremanak garatzen lagunduz".

Baita honako helburu orokor hauek ere:

- ✓ Hezkidetzaren eta bizikidetzaren positiboaren arloan sentsibilizatzea, prestatzea eta hezkuntza-komunitate osoa
- ✓ Hezkidetzako materialak, protokoloak, jarraibideak eta orientabideak zabaltzea, irakasleek beren irakaskuntza-jardunaren eremu guztietan berdintasuna eta bizikidetzaren positiboa eraikitzeke egiten duten lana gidatu eta errazteko.
- ✓ Bizikidetzaren positiboan, bitartekaritza eta gatazken ebazpenean aurrera egiteko ekintzak eta neurriak sustatzea.

Miribilla HLHI-n **2023/2024 ikasturtean sentsibilizazio-fasea** jarriko da martxan, errealitateari modu kritikoa begiratzeko eta arreta non jarri behar den jakiteko
Horretarako, helburu espezifiko hauek planteatzen ditugu, hiru mailatan:

- Irakasleekiko helburuak.
- Familiarekiko eta gainerako hezkuntza-komunitatearekiko helburuak.
- Ikasleekiko helburuak

SENTSIBILIZAZIO FASEA

HELBURU ESPEZIFIKOAK – IRAKASLEEKIKO

1. Klaustroa hezkidetzaren ikuspuntua/begirada izaten sentsibilizatu				
HELBURUAK	NORI ZUZENDUA	ARDURADUNAK	DENBORALIZAZIOA	EKINTZA
- Klaustrokideei proiektuaren berri luzatzea.	Irakaslegoa	Hezkidetza batzordea BEA	Kurtso hasiera	- Jasotako prestakuntzaren eta genero berdintasunarekin lotutako prestakuntza- eskaintzaren berri eman klaustroari
- Sentsibilizazio eta prestakuntza handiagoa lortzea hezkidetzan, bai teoriarik praktikan bezala.	Irakaslegoa	Hezkidetza batzordea BEA	Ikasturtean zehar	- Hezkidetzagune baliabidea erabiltzen hasi hainbat jarduerara egiteko. -Beste jarduerara eta baliabide batzuk biltzen hasi.
- Hizkuntza ez-sexista, ez-diskriminatzailea eta bai inklusiboa erabiltzea ikastetxeko ahozko eta idatzizko komunikazio-testuinguru arruntetan	Irakaslegoa	Hezkidetza batzordea Zuzendaritza Taldea Klaustroa	Ikasturtean zehar	- Dokumentuak hizkuntza inklusiboarekin berrikusi eta eguneratu. -Egunerokotasunean idatzizko eta ahozko hizkuntza ez-sexista erabiltzea ikastetxeko gune guztietan (patio, jantokia, gela...)
- Genero-berdintasuna bultzatzen duten jarduerak sustatzea	Irakaslegoa	Eskola komunitatea	Ikasturtean zehar	- Data hauek ospatu: - Azaroaren 25a. “Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna” - Martxoaren 8a. “Emakumearen eguna” - Apirilaren 23a. Liburuaren eguna

-Emakumeak eta beraien historian zehar egindako ekarpenak goraiatzeari	Eskola Komunitatea	Klaustroa Familiak Irakaslegoa	Otsailean	- Inauteriko jaialdian parte hartu. "Emakumea eta zientzia". -"Emakumea eta zientzia" ikas egoera programatu eta gauzatu.
- Programazio didaktikoetan hezkidetzaren curriculumaren zeharkako elementu gisa sartzen hastea	Irakaslegoa	Hezkidetzaren batzordea BEA	Ikasturtearen zehar	- Proiektu berrietan, gaietan, ikas egoeretan... genero ikuspegia txertatu.

HELBURU ESPEZIFIKOAK - FAMILIAREKIKO

1. Familiengatik hezkidetzaren oinarritutako ikuspegia zabaltzea sentsibilizazio bat eta inplikazio bat sortuz.				
HELBURUAK	NORI ZUZENDUA	ARDURADUNAK	DENBORALIZAZIOA	EKINTZA
- Proiektuaren berri luzatzea.	Familiak	Hezkidetzaren batzordea BEA	Kurtso hasiera	- Proiektuaren aurkezpenaren parte hartu
- Informazio- eta prestakuntza-saioak antolatzea, hezkidetzarekin zerikusia duten gaiak lantzeko.	Familiak	Hezkidetzaren batzordea BEA Bitartekari	Ikasturtearen zehar	- Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunari buruzko gogoeta egin eskolak antolatutako tailerretan
-Familien (gurasoak-legezko tutoreak) presentzia eta parte-hartzea erraztea ikastetxeak antolatutako jardueretan.	Familiak	Hezkidetzaren batzordea Zuzendaritza Taldea Klaustroa	Ikasturtearen zehar	- Ikastetxeak antolatutako jardueretan parte hartu eta lagundu.

HELBURU ESPEZIFIKOAK - IKASLEEKIKO

1. Genero indarkeriaren prebentzioa eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea .				
HELBURUAK	NORI ZUZENDUA	ARDURADUNAK	DENBORALIZAZIOA	EKINTZA
- Ikaskideekin berdintasun, errespetu eta lankidetzaren harremanak ezartzea.	LH eta HH –ko ikasleria	Irakasleria	Ikasturtean zehar	-Lanak, jolasak... taldekatze heteroegoneoekin egin -Berdintasunarekin, aniztasunarekin eta abarrekin lotutako filmak ikusi. -Hezkidetzari buruzko hainbat gai buruz hausnartu, hala nola rolei, desberdintasunei buruz...
-Tutoretza-planean programatutako Hezkidetzagune programaren jarduerak gauzatzea.	LH eta HH –ko ikasleria	Irakasleria	Ikasturtean zehar	- Programatutako jarduerak tutoretza orduetan gauzatu.
- Eskolak antolatutako hezkidetzaren kanpainetan parte hartzea.	LH eta HH –ko ikasleria	Irakasleria	Ikasturtean zehar	-Egun berezietan errespetuz parte hartu : -Azaroak 25 -Martxoak 8 -Apirilak 23
-Emakumeak eta beraien historian zehar egindako ekarpenak goraipatzea.	LH eta HH –ko ikasleria	Irakasleria	Otsailean	“ Emakumea eta zientzia “ ikas egoera landu eta Inauteriko jaialdian parte hartu.

METODOLOGIA

Haur hezkuntzan zein lehen hezkuntzan metodologia ireki eta malgu batekin lan egingo dugu, batez ere jolasari esker ikaskuntza esanguratsuak lor ditzakegula abiapuntutzat hartuta.

Era berean, eta ikuspegi horretatik abiatuta, ikasleen esperientzietan oinarritutako jarduerak, gertakariei buruzko hausnarketa-jarduerak, arazo erreal eta imajinarioen planteamenduak burutuko dira .

Gainera, aniztasunarekiko arretaz ahaztu gabe, haur bakoitzaren ezaugarriak, bakoitzaren banakako desberdintasunak eta askotariko hezkuntza-egoerak proposatuko ditugu.

Hezkuntza-komunitate osoaren konpromesua izango dugu arauak eta balioak egiten eta eztabaidatzen parte hartuz

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Ebaluazio-irizpide hauek kontutan hartuko ditugu gure plana ebaluatzeko:

- Hezkuntza-komunitateak Berdintasun eta Bizikidetzaren Planari buruz duen ezagutza maila
- Hezkuntza-komunitateak bizikidetzaren eta berdintasunaren arloan dituen beharrei erantzuteko orduan planteatutako jardueren funtzionaltasuna .
- Planteatutako helburu espezifikoaren lortze-maila eta helburu horiek Berdintasun eta Bizikidetzaren Planaren helburu orokorren lortze-mailan duten eragina.
- Hezkuntza-komunitatearen gogobetetze-maila
- Ikastetxeko berdintasunaren eta bizikidetzaren bilakaera.

CEIP MIRIBILLA HLHI

IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

IKASTETXEAREN IZENA: MIRIBILLA HLHI

IKASTETXEAREN KODEA: 015360

DATA: 2023/06/16



2023/06/16



1. SARRERA

Ikastetxearentestuingurua

Kokapena.mailak.ikasleria.klaustroa.familienmailasozioekonomikoetabaliabide teknologikoak.ikastetxearenikuspegiaetabaloreak...

Miribilla HLHI Bilboko Bilbao La Vieja auzoan kokatutako ikastetxe publikoa da, eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasketak lerro batean eskaintzen ditugu, D ereduan, hau da, 2 urtetik 12 urtera bitarteko ikasleak ditugu.

Eskolako klaustroa 36 pertsonen osatzen dugu: 3 zuzendaritza taldean, jantokiko arduraduna, Berrikuntza arduraduna, 2 ingelesa irakasle, 1 heziketa fisiko irakasle, 2 urteko laguntza, musika irakaslea, 2 HIPI, 5 HPB taldean, 3,5 hezitzaile, 1 A eredurako laguntza, 1 aholkularia eta 13 tutore.

Miribilla HLHI zentroa izen bereko auzoan dago, Bilbo Zaharrarekin mugakide. Ikasleak, batez ere, Zabala, San Frantzisko eta Bilbo Zaharra auzoetatik datoz, eta ikastetxetik urrunago dauden auzoetako ikasleak ere jasotzen ditu zenbait arrazoi direla medio, ikastetxean eskolatuta daude (Otxarkoaga, Zorrotza, Basauri).

Bestalde, aipatzekoak dira zenbait datu:

- Ikastetxearen zaurgarritasun indizea %100 da.
- Bilbo Zaharra (ikasle gehien auzoa), Bilboko udalerriko familia-errenta baxuena duen hirugarren auzoa da.

Zentro honi berezitasuna ematen dion beste ezaugarrietako bat kultura-aniztasuna da, baita familien jatorriari dagokionez ere.

- Ikastetxeari berezitasuna ematen dion beste faktore garrantzitsu bat familien mugikortasuna da, ikasturte osoan ikasleen altak eta bajak ohikoak izatea eraginez.

Kasu batzuetan, senideak beren seme-alaben hezkuntza-prozesutik kanpo daude edo itxaropen txikiak dituzte eskola-erakundeetan.

- Familien ehuneko handi bat enplegu prekarioetan eta ezegonkorretan aritzen da, eta horietako askok gizarte-soldatak jasotzen dituzte. Horrek eragiten du etxean dituzten baliabide digitalak beti kalitaztekoak ez izatea (mugikorrek, tabletak.. ordenagailuak izan beharrean). Gure

ikasleriaren % 41a etorkina da, %58,4a jatorriz bertakoa da. %48,6 emakumezkoak eta %51,4 gizonezkoak.

Euskadiko Indize Sozioekonomiko eta Kulturala (ISEK) 0 eta 1 artean kokatzen da, 1 baxua izanda. Eskolako ISEKaren batz bestekoa -1,5 da baxuaren azpitik kokatzen gaitu.

Arlo akademikoaz gain, euskararen erabilera indartzea eta Europak ezartzen dituen garapen iraunkorrerako helburuak gureak egin ditugu eta, horregatik mende honetarako hezkuntza-erronka nagusiak jorratzea da gure helburu nagusia gure ikaslegoaren identitatea eraikitzeko: pentsamendu kritikoa eta kultura digitala lantzea; ingurumenarekiko jarrera eta kontsumo arduratsua garatzea; bizitzan zehar ikasten jarraitzeko trebetasunak garatzea; gatazken konponbide baketsuan heztea; ziurgabetasunaren onarpena lantzea; ekitatean eta hezkidetzan heztea bazterketa egoerak hautemateko sentsibilizatuz; bizimodu osasungarria izateko ohiturak garatzea; proiektu kolektibo baten parte sentitzea (ongizate emozionala bermatzea); eta lankidetzan aritzea elkarrekin bizitzeko.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

ZENTROAREN EZAUGARRIAK

Miribilla HLHIn Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakaskuntza ematen da, 2 eta 12 urte bitartekoak. Jantoki-zerbitzua ere badu. Eraikina irisgarria da igogailua eta arrapala dituelako ikasleentzat.

Beheko solairuan daude irakasleen gela, atezaintza, eskola jantokia, zuzendaritza, idazkaritza eta ikasketa burutzako bulegoak, gimnasioa eta aldagelak, bai eta irakasleen eta ikasleen komunak ere.

Lehenengo solairuan daude Haur Hezkuntzako gelak, ziklo horretako tutoretza, ikus-entzunezkoen gela, liburutegia eta psikomotritate gela, irakasle eta ikasleen komunak.

Bigarren solairuan daude Lehen Hezkuntzako gelak, PT, ALE, Hezkuntzako lehen, bigarren eta hirugarren zikloko tutoretzak, ludoteka, musika-gela, plastika-gela, ordenagailu-gela eta biltegi txiki bat, bai eta irakasleen eta ikasleen komunak ere. Azkenik, azotean zati batean estalita dago, eta, ahal den guztietan, jolastoki gisa erabiltzen da Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako.

Irakasleentzako eta ikasleentzako komunak ere baditu.

Guztira, zentroak 3 patio ditu: bat haur-hezkuntzarako mugatua, beste bat futbol- eta saskibaloikantxekin eta eremu estalia, eta, azkenik, bat azotean partzialki estalia.

HORNIKUNTZA DIGITALAri dagokionez,

Eskolako zerbitzaria eta honen funtzionamendurako behar diren gailu digital guztiak eraikinean daude kokatuta.

2.010. urtetik sare konexioa daukagu (eskola 2.0) eta horrekin batera gela bakoitzean ordenagailu bat izatea lortu genuen.

Gainera, sarera konektaturik 4 inprimagailu ditugu (4ak fotokopiagailuak direnak, bi kolorez, 2 zuzribeltzez)

Honetaz gain, 4., 5. eta 6. mailetan ordenagailu eramangarriak ditugu, ikasle bakoitzeko, gelako lanak modu digitalean aurrera eraman ahal izateko.

Haur Hezkuntzako geletan zein Lehen Hezkuntzako gela guztietan arbela digitala edo pantaila digitalak ditugu (ingeleza, laguntza gelak eta musikako gelak barne). Baliabide hauek Hezkuntza Sailak berritzen dituen ehinean aldatzen ditugu.

Informatika gela bat dugu hantxe ikasleriak beraien lanak egiteko.

Bestetik, ELKARTENET erakundearekin elkarlan estua mantentzen dugu eta beraiekin familiek ordenagailuak erabil ditzatela guraso eskola egiten da, AMPA antolatuta. Modu honetan, arrakala digitalarekin bukatzeko aukera ematen diegu familiei, eta prezio sinbolikoan ere berriztutako eramangarriak saldu zaizkie ELKARTENET proiektuari esker.

ELKARTENETek eskolan martxan jarri zuen beraien lehenbiziko proiektua: TXIKILINUX sistema eragilearekin ordenagailu batzuk jarri zituen HH 5 urteko gelan eta LHko 1., 2. mailetan. Era honetan ikasleek hasierako kontaktua izango dute teknologia digitalarekin.

Administrazioarekin komunikaziorako bai irakasle bai zuzendaritza taldeak hezkuntzako korreoaren bitartez egiten da @irakasle.eus.

Eskolako irakasleriaren artean gmail plataforma erabiltzen dugu zentruaren domeinuarekin, @miribillaeskola.net,

Whatsapp ere erabiltzen dugu, klaustroaren taldea sortuta.

Beste plataformaetaz erbitzuak:

Hezkuntza WEB orrialdea eta bere barnean dauden zerbitzuak, pertsonala kudeatzeko EIZU, ikuskaritza, berrikuntza... dokumentazioak eskuratzeko, eta HEZKUNTZA ATARIA matrikulazioa, DAEa, jantokia ebaluazioak, absentismoa... kudeatzeko.

Ekipoen mantenuaz Hezkuntzak eskeintzen digu CAU zerbitzua.

Konektibitateari dagokionez, wifia badago eskola osoan, bai ikasleentzat bai irakasleentzat Eskolako web orrialde ofiziala, <https://miribillaeskola.net/>

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nolagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak [LOMLOE] aldatuak, Espainiako hezkuntza-sistemaren helburuetako bat honako hau da, artikulua 2.I): "ikasleak gizarte digitalean erabat txertatzen direla bermatzeko, gaikuntza eta baliabide digitalen erabilera segurua eta giza duintasuna, konstituzio-balioak, oinarrizko eskubideak eta, bereziki, norbanakoaren eta taldearen intimitatea errespetatzen eta bermatzen ditu".

95/2022 Errege Dekretua, Haur Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituen; I. eranskinean, kompetentzia digitala agertzen da etapako funtsezko kompetentzietako bat. Hitzez hitz, honako hau adierazten du: "etapa honetan alfabetatze digitalaren prozesua hasten da"

Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituen 157/2022 Errege Dekretuaren 6. artikuluan, printzipio pedagogikoei buruzkoan, hau adierazten da: "Etaparen horretako zenbait arlotan, irakurmena, ahozko eta idatzizko adierazpena, ikus-entzunezko komunikazioa, kompetentzia digitala, sormena, espiritu zientifikoa eta ekintzaitza sustatzea arlo guztietan landuko dira". 9. Artikuluan kompetentzia digitala funtsezko kompetentzia dela adierazten da.

Ikasturteko hasierako ebazpenean azaltzen den bezala, aurreko eskolan ikastetxeko Proiektu Digitala sortu behar da. Hezkuntza komunitate osoaren proiektu partekatua izan behar da, koherentzia emateko eta teknologien erabilera gidatzeko. Ikastetxea kompetentzia digitala garatzeko erreferentzia izango da.

Honegatik, Miribilla HLH Ikastetxeko Proiektu Digitalak eskolako egungo errealitateaz jabetzen lagunduko du. Errealitate hori oinarria izanda, eskolako marko-digitala eraikiko dugu erabiliko diren gailu horien hautaketarekin, egonkortzearekin eta amankomuneko erabilerari indartuz. Bertako irakasle zein ikasleen kompetentzia digitala garatzeko tresna bihurtuko da. Horretarako, helburuak eta hauek lortzeko ekintzen plangintza zehaztuko da eta, helburu horien lorpen maila neurtzeko, ebaluazio irizpideak ere.

